Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

397

Maiatzak 15, 2021

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Irun Aurrera bonuak
5 Irun 1522: Bisita gidatuak
6-7 Virginia Gasull
8 Kirolak: Real Union
9 Kirolak: Santiagotarrak
10 Oiassotik orainaldira
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Mugikortasun jasangarria
14 iGazte
15 Agenda

Argazkia: Estudio Gover

Janeth Carreño
Koordinatzailea
667 94 04 05

caser cuidados

INFORMA ZAITEZ!

Etxez etxeko laguntza

EDOZEIN EGOERATAN:
- Menpekotasunean
- Ahalmen urritasunean
- Konbaleszentzia edo gaixotasunean

EDOZEIN DENBORAZ
- Aldi baterakoa
- Iraunkorra

EDONON LAGUNTZEN
- Etxean edo etxetik kanpo
- Ospitalean
- Egoitzan
- Enpresan

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

Orain dela 100 urte Irunen albiste ziren gertaerak errepasatzeko aukera eskaintzen du 1921eko maiatzaren 22an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak. Aldizkariaren hasieran P. Sarasquetak Etorbidea zubiko gertakari bat kontatzen du, muga zeharkatzen duten bidaiariei mugazainek egindako kontrolen bitxikeriak ditu aipagai. "Sin mas techumbre..." izenburua duen artikuluan Yole ohiko kolaboratzailearen olerki bilduma berria argitaratzen da. Jarraian, S. Ignotusek gaztaroari buruz idatzitako artikulu laburra irakur daiteke.

Aldizkariaren bigarren orrialdea kirol kronikarekin hasten da, hiriko futbol txapelketa eta asteko kirol partiduen emaitzen berri emateko. Horren ostean, San Pedro eta San Martzial jaien programarekin loturiko idatzia argitaratzen du E.R. siglekin sinatzen duen aldizkariko kolaboratzaile ohikoak. Artikulu zabal horretan, jaietako programaren antolaketarako udalak bideratutako aurrekontuaz gogoeta egiten da eta egitaraua hiritarrentzat erakargarriago izan dadin proposamenak luzatzen ditu idazleak. Ondoren, hasiera batean poliziako komisarioa hiritik lekualdatzeko asmoaz aipatzen da, azkenean leku aldaketa hori egingo ez denaren albistea emateko. El Reporterrek hauteskundeetako hautagaiak aztertzen ditu, emaitzak argitzen laguntzeko. Azkenik, orrialdearen amaieran "Notas Municipales" atalean udal bilkurako erabaki esanguratsuak laburbiltzen dira.

Hirugarren orrialdearen hasieran, hiriko azken bi ezkontza garrantzitsuenen berri ematen da. Batetik, Juan Manuel de Aristegui eta Carmen Petiten ezkontza eta, bestetik, Juan Petit eta Soledad Iruretagoyenaren ezkontza. Horien xehetasunak ,azaltzeaz gainera, ezkonberrien argazkiekin osatzen da artikulua. Ohiko moduan, "Ecos de Sociedad" eta "Noticias" atalekin amaitzen da aldizkaria.

Argazkiak:

25788: Pilar kaleko egungo eremuaren bista, Erromes plaza, Juncal kalea eta parrokia-eliza ikusten delarik (XX. mendearen hasiera).

57828: Iparralde etorbidea, garai hartan Frantziako etorbidea deitua, inauguratu berria (1914 inguruan).

57408: Segurtasun indarrak, militarrak eta zibilak Etorbideko nazioarteko zubian, Irungo Aduanaren eraikinaren ondoan.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Carlos Sánchez

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Zabalik dago 2021eko Udagiro programan eta Errefortzuko Euskara Eskolan izena emateko epea

Zabalik dago 2021eko Udagiro programa eta Errefortzuko Euskara Eskolan izena emateko epea. Ekimena Irungo Udalak antolatzen du Irungo ikastetxe edo institutuen laguntzarekin. Egitasmoa Irungo ikastetxeren batean eskolatuta dauden haur eta gazteei zuzenduta dago. Izen-ematea maiatzaren 6tik 26ra egin beharko da eta doakoa izango da. Jarduerek COVID-19aren pandemiari aurre egiteko ezarritako segurtasun- eta higiene-neurriak beteko dituzte.

Udagiro
Udagiro beste herrialde edo autonomia-erkidego batzuetatik hirira duela gutxi iritsitako gazteei zuzendutako udal-proiektu bat da. Irungo Udaleko Euskara Arloak eta hiriko ikastetxeek elkarlanean jarduera ludiko eta dibertigarriak antolatzen dituzte euskararen erabilera sustatzeko. Udagiro programaren bitartez uda garaian jarraipena eman nahi zaio euskararen gainean ikastetxeetan egiten den lanari. Horrela, ikasleek euskararen erabilera areagotu eta bultzatu dezaten nahi da.

Programa 2007tik antolatzen da, eta oso harrera ona izaten du ikasleen zein ikastetxeetako eta institutuetako irakasleen artean . Ekimenean Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako maila guztietako ikasleek parte hartzen dute. «Jarduera hauen bidez, hizkuntza-edukien transmisioa indartu nahi da. Jardueraren helburua da beste herrialde edo autonomia-erkidegoetatik Irunera iritsi berri diren haurrei laguntza eskaintzea euskaraz hitz egiteko orduan, eta udaldian euskararekin harremana ez galtzea eta, horrela, ikasleak motibatzea euskarekiko» nabarmendu du Miren Echevestek.

Udagiro programak bi txanda izango ditu: lehena, uztailaren 2tik 23ra eta, bigarrena, abuztuaren 4tik 25era. Bestetik, jarduerak goizeko 10:00etan hasi eta eguerdiko 12:00etan amaituko dira. Sei talde osatuko dira guztira, 3 uztailean eta beste 3 abuztuan, hau da, 15 lagun arteko taldeetan banatuta. Dena den, aldaketak egon daitezke eskaeren arabera, beti 6 taldeko gehieneko muga errespetatuz. Taldeak osatzeko izena eman dutenen adina eta maila kontuan izango da.

Errefortzuko euskara eskolak
Errefortzuko eskolen programa 2020an martxan jarri zen, kutsatzeak saihesteko ikastetxeetan aurrez aurreko eskolak bertan behera geratu ondoren eta Irungo familia askok euskararekin oso harreman txikia edo batere harremanik ez dutela kontuan hartuta. Hortaz, programa eruskararen erabila sustatzeko abiatu zen.

Behar-beharrezkoak
Errefortzuko eskolen kasuan, aldiz, 4 txanda antolatuko dira: uztailaren 5etik 16ra, uztailaren 19tik 30era, abuztuaren 2tik 13ra eta abuztuaren 16tik 27ra. Eskolak arratsaldez egingo dira, arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara. Udagiro programaren antzera, parte-hartzaileak 15 lagun arteko taldeetan banatuko dira. Guztira, 10 talde osatuko dira, eta txanda bakoitzeko taldeak eskariaren arabera antolatuko dira.

Euskara arloak jakinarazi duenez, pandemia egoera dela eta programa horiek are beharrezkoagoak dira. Izan ere, indarrean dauden neurrien ondorioz gazteek euskara ikastetxetik kanpo erabili edo praktikatzeko aukera gutxiago dituzte. Ondorioz, Udalak berriz ere programa eskaintzea erabaki du, kasu honetan, Bigarren Hezkuntzako ikasleei soilik zuzenduta.

Familiaola programak parkeez euskaraz gozatzeko proposamena luzatu du

Parketarrak jardueretan parte hartzeko ez da beharrezkoa familiek aurrez izena ematea

Euskara Arloak Familiaola programaren esparruan aurrera eramango den hurrengo jardueraren berri eman du. Azken urteetan 2 urtetik 9 urtera bitarteko haurrak dituzten familien artean euskararen erabilera sustatzeko jarduera ludikoak antolatzeko garatu den ekimena da Familiaola.

Maiatzean, Parketarrak izango dugu, hiriko parke eta plazez euskaraz gozatzeko gonbidapena. Horrela, maiatzaren 21 eta 28an, Urtxintxa Eskolaren eskutik, jarduerak izango dira haurrentzako parkeen inguruko jolastokietan: maiatzaren 21ean, Gain-Gaineanean; eta, maiatzaren 28an, Nagore Laffagen. Jarduera guztiek ezaugarri komun bat izango dute: esan bezala, euskaraz egingo dira.

Miren Echeveste ordezkariak nabarmendu duenez, "programa honek badaramatza urte batzuk ikasgeletatik kanpo euskararen erabilera bultzatzeko lanean, askotariko ekimenen bidez. Hain zuzen ere, 'Parketarrak' ekimenaren esparruan, hiri osoan barrena haurrentzat ditugun parke edo jolastokiak baliatzen ditugu, txikienentzako aire zabaleko jarduera ludikoak antolatzeko, euskara dela protagonista".

Seiko taldeak
Seiko taldeak osatuko dira, adinaren arabera, jardueretan parte hartzen duten haurrak kontuan izanik. Ez da beharrezkoa familiek aurrez izena ematea. Nolanahi ere, aipatzekoa da pandemiaren ondorioz ezarritako segurtasun eta higiene neurriak hartuko direla, hala nola parte hartzen duten taldeak bereiztea, tenperatura kontrolatzea eta distantzia gordetzea. 17:30ean eta 19:00etan izango dira jarduerak.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Irun Aurrera bonuen hirugarren edizioan 206 establezimenduk hartuko dute parte

Irun Aurrera bonuen hirugarren edizioa maiatzaren 6an hasi zen. COVID-19ak eragindako krisialdia dela eta, saltoki txikiak laguntzeko xedez abiatutako proiektua da. Irungo Udalak 10 euroko balioa duten 20.000 bonu jarriko ditu zirkulazioan, 206 establezimendu ekimenera batu ostean.

Behin kanpainari atxikitzeko epea itxita, 206 establezimenduk eman dute izena Irun Aurrera bonuen hirugarren edizioan. Hain zuzen ere, Irun Aurrera bonuen hirugarren edizioak 2020ko udaz geroztik antolatutako kanpainen parte-hartzerik handiena izango du, 49 establezimendu berri atxikitu baitira kanpainara. Juncal Eizaguirre Hiri Bultzadako ordezkariak adierazi duenez, programaren hirugarren edizioa indartu egin da, establezimendu gehiagok bonuak eskaintzeko aukera izan dezaten programaren aurrekontua handitu da eta. Zehazki, 74 saltoki eta ostalaritzako 32 establezimendutan erabili ahalko dira udalak erosketa-txartelak. Oraingo honetan, 15.000 bono merkataritzan gastatzeko zuzenduta egongo dira, eta 5.000, berriz, ostalaritzarako.

Kanpainara atxikitutako saltoki eta ostalaritza establezimenduen zerrenda Irun On webgunean kontsulta daiteke. Bonuak trukatzeko prozedura aurreko edizioetako berbera izango da, hau da, kontsumitzaileek erosketa-txartelak erbiltzeko NANaren zenbakia ematea nahikoa izango da. Izan ere, bonuek ez dute inolako euskarri fisikorik eta Irunen erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonek erabili ahalko dituzte. Konkretuki, irundar bakoitzak guztira 10 bonu erabiltzeko eskubidea izango du, horietako bi gehienez establezimendu berean erabili ahalko dituelarik.

Erabilera baldintzak

Bonuak erabiltzeko saltokietan gutxienez 30 euroko erosketak egin beharko dira. Kasu horretan, bezeroak 20 euro ordainduko lituzke soilik, bonu bakoitzak 10 euroko balioa baitu. Ostalaritzaren kasuan, aldiz, erosketa minimoa 20 eurokoa izan beharko du, horrela, 10 euroko erosketa-txartela erabiliz bezeroak bere poltsikotik bakarrik 10 euro ordainduko lituzke. Guztira, Irun Aurrera bonuen hirugarren kanpainak 200.000 euroko aurrekontua izango du.

Dena den, bonuak erabiltzeko unean ezingo dira pertsona bat baino gehiagoren bonuak erabili erosketa bakarra ordaintzeko. Alegia, erosketa-txartel bakoitzak pertsona bakar baten bonuei lotuta egon beharko du. Bestetik, ekimen honetatik kanpo geratzen dira alkoholdun produktuak soilik dituzten erosketak.

Parte-hartze handia

Kanpainara atxikitutako establezimenduek bonuak eskuragarri daudela adierazteko pegatina izango dute lokaleko erakusleihoan edo atean. Establezimendu bakoi- tzak, bere erabiltzaile eta pasahitza izango dute erabiltzeko oso erraza izango den webgune batean sartu ahal izateko. Bertan, bere establezimenduari zenbat bono dagozkion, zenbat gastatu diren momentura arte, baita zenbat geratzen zaizkion ikusteko aukera izango dute ere. Era berean, nortasun agiri baten zenbakia ipintzean, pertsona horrek zenbat bono gastatu dituen ikusi dezakete, baita zenbat geratzen zaizkion ere. Webgune hori, datu baseari lotuta dagoenez, denbora errealean eguneratutako datuak erakusten ditu. Bestalde, bonuak aplikazioaren bitartez kudeatzeak udalak kanpainari atxikitako denda eta establezimenduei askoz arinago ordaintzea ahalbidetzen duela azaldu du Juncal Eizaguirrek.

“Programaren hirugarren edizioa indartu egin da, establezimendu gehiagok bonuak eskaintzeko aukera izan dezaten”

Juncal Eizaguirre, Hiri Bultzadako ordezkaria

“Bonuek asko lagundu diete saltoki txikiei, eta hirugarren edizioa askoz hobeto etorriko da”

Óscar Echeveste, Biotekako dendaria

Bonuen aurreko edizioetan parte hartu duen saltokietako bat Beraketa karrikan dagoen Bioteka denda da. Dendaren izenean Óscar Echevestek adierazi duenez, “bonuek asko lagundu diete saltoki txikiei, eta hirugarren edizioa askoz hobeto etorriko da”. Biotetako dendariak azaldu duenez, orain arte indarrean egon diren murriztapen neurrien ondorioz, Irungo merkataritzak eta ostalaritzak Nafarroa, Iparralde edo Hondarribiko bezeroen falta asko nabaritu dute. “Bonuak irundarrek Irunen kontsumitzea bultzatzeko oso lagungarriak izan daitezkeela uste dut”.

Luis Camarero Jeca eta Bost arropa dendetako arduradunak azaldu duenez, bonuen kanpaina berria hasi aurretik, bezeroak jada erosketa-txartelak noiz aterako ziren galdetzen hasiak ziren. Gainera, Luis Camarerok gogoratu duenez, bonuen hirugarren edizioak Jaunartze garaiarekin bat egingo du, beraz, “bonuak jaunartzeek eragindako gastuak arintzen laguntzeko baliagarriak izango dira”.

Txaro Arribas Mercairuneko presidenteak nabarmendu duenez, berriz, “honelako ekimenak interesgarriak dira, abantailak ematen dizkietelako kontsumitzaileei. Merkatuan oso begi onez ikusi dugu, eta postu askok eman dute izena”. Biotetako dendariak esandakoarekin bat eginez, itxiera perimetralek hiriko merkataritzan duten eragina azpimarratu du eta erosketa-txartelek hiriko saltokiei lan egiten jarraitzeko aukera emango diela uste du.

Azkenik, Denok Bat ostalari elkarte sortu berriaren izenean, Don Jabugoko Eneko Mitxelenak espero du Irungo Udalak bonuen ekimen gehiago antolatzea, bertako ekonomia laguntzen jarraitzeko. Era berean, bertako merkataritza eta ostalaritzan kontsumitzea segurua dela gogoratu du Don Jabugoko jabeak. Eneko Mitxelenak “jende guztia parte hartzera” animatu du, bonu guztiak agortuko diren esperantzarekin.

Elkarteen bultzada

Juncal Eizaguirrek Bidashop merkatarien elkarte edo Danok Bat ostalaritza elkarteetako kide diren establezimenduen parte hartzea eskertu du, elkarte horiek egitasmoa hiriko saltoki eta ostalaritza establezimenduen artean zabaltzeko egiten duten ekarpen garrantzitsuaz gogoratzeaz gainera. Ildo beretik, Hiri Bultzada arloko ordezkariak ekimenak orain arte Ostalaritza Mahaian oso harrera ona izan duela azaldu du. Hortaz gain, Irun Aurrera laguntzen inguruan Irungo Udalak egindako inkestak agerian utzi zuenez, pandemiaren ostean hartutako neurrien artean bonuen kanpaina hiritarrek hoberen baloratutako ekintzetako bat izan da.

Irun 1522 fundazioak eta Bidatourrek bisita gidatuak eskainiko dituzte

Erreserbak 635 70 87 46 telefonoan edo bidatour@gmail.com helbide elektronikoan egin daitezke

Irun 1522 fundazioak eta Bidatourrek bisita gidatuak eskainiko dituzte. San Martzial Lehenengo Guduaren V. Mendeurrena Fundazioak “1522ko bideetatik” proiektuan lan egin du azken bi urteetan. Proiektuak Irungo ondare kultural, historiko eta arkeologikoaren gune nagusiak zeharkatzen dituen 14 ibilbide dauzka. Iaz bezala, Fundazioak Bidatour Bidasoaldeko bisita eta txango zerbitzuarekin lankidetzan dihardu berriz ere, bide horietan zehar bisita gidatuak eskaintzeko.

Bisita gidatuak maiatzaren 9an hasi ziren, eta datozen lau hilabeteetan, abuztuaren 29ra arte, martxan iraungo dute. Irun 1522 fundaziotik nabarmendu dutenez, “eskainitako ibilbideak askotarikoak dira”. Hain zuzen ere, ibilbideak luzeagoak edo laburragoak izan daitezke, Irun 1522 fundazioak azaldu duenez, “pertsonen beharretara” egokitu daitezke. Bisita gidatuak euskara zein gaztelaniaz egingo dira eta 5 eta 10 euro arteko prezioa izango dute, luzeraren arabera. Dena den, 12 urtetik beherako haurrentzat ibilaldiak doakoak izango dira. Hortaz gain, jarduera horietan parte hartzen dutenek Eusko Jaurlaritzaren Euskadi Turismo Bonuen deskontuak erabili ahal izango dituzte. Hortaz, 20 eta 40 euroko gastuaren truke, 5 eta 10 euroko deskontuaz aprobetxatu ahalko dira eta Bidatour bidez trukatu behar dira.

Bestalde, Covid-19ak eragindako egungo osasun-egoera dela eta, bisita gidatuetako taldeak murriztuak izango dira, erakunde publikoek unean-unean indarrean dituzten murrizketetara egokituko direlarik. Bisita gidatuen egutegi osoa www.bidatour.com webgunean kontsultatu daiteke eta erreserbak telefono edo WhatsApp bidez 635 70 87 46 telefono zenbakian edo bidatour@gmail.com helbidera idatziz egin daitezke.

1522ko bideetatik

Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta, San Martzial Lehenengo Guduaren V. Mendeurrena Fundazioak sustatutako ‘1522ko bideetatik’ proiektuaren helburu nagusia Irungo ondare historikoa ezagutaraztea da. Era horretan, Eusko Jaurlaritzak ‘Babes bereziko edo ertaineko kultura-ondasun’ gisa kalifikatutako monumentu, eraikin eta aztarna arkeologikoei balioa ematen zaie.

Horretarako, Fundazioak 14 ibilbide diseinatu ditu, oinez, bizikletaz eta, kasu batzuetan, autobusez ere egin daitezkeenak, hiriko zein landa-eremuko hainbat toki zeharkatzeko. Ibilbide horiek Fundazioaren webgunean kontsulta daitezke eta, gainera, Wikiloc plataforman deskarga daitezke, errazago jarraitzeko.

Ibilbide laburrak

Ibilbide laburrenek hiru kilometroko luzera eta bi orduko iraupena dute, 5 euroren truke. Lehen ibilaldia maiatzaren 23an egingo da. Gazteluzarren hasita, Behobia, Konpantzia Uhartea eta Azken Portuko inguruak ezagutzeko aukera eskaintzen du. Ekainaren 6 eta 20an egingo den bigarren ibilbidea, Urdanibiako Jauregitik Jaizubiako Paduretaraino iritsiko da. Hirugarren ibilaldiak, berriz, Santiago zubitik Behobiako zubira arteko eremua zeharkatzen du eta bisita gidatuak uztailaren 3 eta 4an eta abuztuaren 21 eta 22an egingo dira. Ibilaldi labur hauek guztiak goizeko 11:00etan hasiko dira.

Ibilaldi luzeak

Irun 1522 fundazioak antolatutako ibilaldi luzeek gutxi gorabehera 12 kilometroko luzera dute, lau orduko iraupena izango dute eta prezioa 10 eurokoa izango da. Laugarren bisita horiek San Juan plazatik hasita, Estebenea, Makatzaga, Aranzate, Urdintsorotik igaro ostean, Ama Shantalen ermitaraino iritsiko da. Laugarren bisita horiek uztailaren 10 eta 11ean egingo dira. Bosgarren bisita gidatuaren abiapuntua Behobiako zubia izango da eta Lastaolatik Endarlatza ingururaino iritsiko da uztailaren 17 eta 18an eta abuztuaren 28 eta 29an egingo diren irteeretan. Seigarren ibilaldia, berriz, bizikletaz egingo da uztailaren 24 eta 25ean eta abuztuaren 14 eta 15ean. Seigarren bide honek Santiago zubia, Santiago kalea, Azken Portu, Konpantzia uhartea, Behobia, Lastaola eta Endarlatza lotuko ditu. Aipatutako ibilaldi guzti horiek goizeko 9:30etan hasiko dira.

Bestelako ibilaldiak

Datozen hilabeteetako Irun 1522 fundazioak antolatutako ibilaldi gidatuez gainera, fundazioaren Irun inguruan antolatutako beste ibilbideei buruzko informazioa kontsultatu daiteke. Izan ere, fundazioak era askotariko irteerak proposatzen ditu eta ibilbideak Fundazioaren Wikiloc-eko profilean deskarga daitezke, gailu mugikor edo GPS bidez jarraitzeko. Webgunean eskuragarri dauden beste ibilbide horien bitartez Meaka eta San Martzial, Lastargin edo kontrabandisten bideak, Aiako Harria natura parkeko bunkerrak edo Ibarlatik Arburuko Harria lotzen dituzten ibilaldiak egitea proposatzen da.

ola
SAGARDOTEGIA

Virginia Gasull, idazlea:

“Jendea liburuen babesaren bila dabilela uste dut, bizi dugun egoera latzetik ihes egiteko”



Virginia Gasull idazlea Nicole izeneko bere azken eleberriaren aurkezpen lanetan murgildurik dabil. Idazlea “In vino veritas” lanarekin estreinatu zen 2015. urtean eta bere azken lanean Lehen Mundu Gerrako frontean lan egin zuen emakume mediku baten istorioa kontatu du. Idazle irundarrak bere azken liburua idazteko prozesua nolakoa izan den azaldu du.

Zergatik erabaki zenuen Nicole Manginen istorioa kontatzea?

Nicolen istorioa nire bizitzara kasualitatez iritsi zen. 2016ko azaroan Frantziako telebista-kanal bat ikusten ari nintzen, gure hiria mugatik hain gertu egonda telebistan sintonizatu dezakegun kanal frantses horietako bat. Kate horietan azaroan Lehen Mundu Gerrari buruzko dokumentalak eman ohi dituzte armistizioa dela eta. Verdungo guduari buruzko dokumentala ikusten ari nintzen, uniformez jantzitako emakume bat telebistan agertu zenean, artzain-txakur aleman bat alboan zuelarik. Dokumentaleko off ahotsak azaldu zuenez, irudian agertzen zena Lehen Mundu Gerrako lubakietan egon zen emakume bakarra zen eta beti Dun bere txakurra alboan zuen gizonengandik babesteko. Txakurrak Dun izena zuen Verdunen omenez. Istorio hori lehen aldiz entzun nuenean nire atentzioa deitu zuen eta hari horretatik tiratzen hastea erabaki nuen emakume hori benetan nor izan zen eta gerran zehar zer gertatu zitzaion jakiteko.

Beraz, zure azken liburuan kontatutako istorioa erreala da, benetako pertsonaia baten bizipenetan oinarrituta dagoena, ezta?

Bai, bai. Nicolek gerran zehar egindako guztia aztertu dut. Horrela, Verdungo guduan ez ezik, Sommeko guduan eta beste gudu batzuetan parte hartu zuela jakin nuen. Hain zuzen ere, ospitale batera iristen zen bakoitzean entzun zuen lehen esaldia honako hau zen: “Ezinezkoa da, gizon mediku ofizial bat eskatu dut eta emakume bat bidali didate”. Izan ere, oso modu bitxian iritsi zen emakume hau gerrara. Akats baten ondorioz mobilizazio agindu bat jaso zuen. Gainera, dibortziatu zen lehen emakumeetako bat izan zen bere senarrak engainatzen zuela jakin ostean, garai hartan gizartean dibortzioa gaizki ikusita zegoen arren. Abuztuan etxe frantsesetara mobilizazio aginduak bidaltzen hasi zirenean, aginduak betetzen zituen funtzionarioak Girard bere ezkon abizena Gerard izenarekin nahastu zuen eta gutuna bidali zioten, gizon bat zela pentsatuta. Gutuna jaso zuenean zalantzak izan zituen, baina bere bi anaiak lerroetara deituak izan zirela gogoratzen duenean, bere anaiak bezalako gizonak lagundu nahi zituela argi izan zuen. Erabakia hartu eta frontean aurkeztu zenean ondoren askotan entzungo zuen lehen esaldi hori lehen aldiz entzun zuen, baina agindua igorria izan zenez, ofizialek frontean onartu behar izan zuten. Horrela hasi zen Nicolen istorioa gerra ospitale eta lubakietan.

Eleberria idazteko dokumentazio lan handia egin duzu?

Prozesu luzea izan da. Bi urte eta erdi behar izan ditut artxibategietan arakatu eta Nicolek gerran zehar egindakoa deskubritzeko. Hortaz gain, ikerketa lana beharrezkoa izan da XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasieran osasunaren eremuan lan egiten duen emakume baten azalean sartu ahal izateko. Horretarako, hemeroteka eta artxiboak arakatzeaz gain, gatazkan parte hartu zuten beste mediku eta erizainen egunerokoak irakurri ditut. Egunerokoak Frantziako Liburutegi Nazionalean eta Londreseko Gerra Museo Inperialean eskuratu nituen. Ikerketa lanean murgilduriik nengoenean, bizirik dagoen Nicolen senide bakarrarekin harremanetan jartzea lortu nuen, hau da, bere iloba-bilobarekin. Senideak familiako argazkiak eta Nicolen anaiak, Morisek, idatzitako dokumentu bat utzi zizkidan, gerrako memorien antzeko zerbait.

ESTUDIO FOTOGRAFICO
GO VER™
Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Dokumentazio lana are konplikatuagoa izango da, historia gizonek eta gizonengan zentraturik idatzita izan dela kontutan hartuta?

Bai, noski. Bitxia da historiak pertsonaia femeninoak nola ahazten dituen ikustea. Historia gizonengatik idatzia izan denez, emakumeen papera askotan ahaztuta izan da. Horren erakuslea da gerra amaitu zenean Nicolek ez zuela inolako kondekorazio edo aipamen berezirik jaso, bere ekarpen eta parte-hartzea ia ahaztuz. Hori dela eta, Nicolen istorioa berreskuratzea erabaki nuen bera eta gerran parte hartu zuten beste emakumeak gogora ekartzeko. Hain zuzen ere, Nicolen istorioa aztertzen nuen bitartean, bidean gerran parte hartu zuten beste emakume erizain edo osasun arloko langileen istorioak aurkitu nituen. Egia esan, emakume horietako askok Nicolekin kointziditu ez arren, haien istorioak eleberrian txertatzea erabaki nuen testuinguru berean mugitu zirela kontutan hartuta. Emakume horietako bat Marie Curie da eta bere istorioa kontatu dut, erradiografiak gerran lagungarriak izan zitezkeela uste zuenez, gatazkan parte hartzea erabaki zuela azaltzeko. Curiek garaiko familia aristokratikoen ibilgailuak maileguan hartu zituen, ekipamendu erradiologikoa duten autoetan bihurtzeko. Horretaz gain, fronteko hainbat ospitaleetatik igaro zen, erradiografiekin laguntzeko. Hala ere, gerraren aurretik Nicole eta Marie lagunak izan zirela deskubritu nuen, elkarrekin irakasle lanetan ibili baitziren.

Zure eleberriak Lehen eta Bigarren Mundu Gerrako testuinguruetan sortu dituzu. Erraza da oinarri historikoa duten istorioak idaztea?

Egia da, konplikatuagoa da testuinguru historikoa duten eleberriak idaztea. Nire lehen nobelan Bigarren Mundu Gerran zentratu nintzen, okupazioan zehar Bordeleko ardogileek bizitakoa kontatzeko. Orain arte Bigarren Mundu Gerra gehiago interesatu izan zait, baina Lehen Mundu Gerra ikertzen hasi nintzenean gatazka guztiaren hasiera bertan dagoela konturatu naiz, bigarrena lehenengoaren ondorioa baita. Orokorrean, Lehen Mundu Gerrak, bigarrenarekin alderatuta, arreta mediatiko gutxiago jaso duela uste dut.

Egun pandemiaren ondorioz, osasungintzaren arloa gaurkotasun handiko gaia da. Eleberria idatzi zenuenean ez zenuen imajinatzen nobela argitaratzeko unean hainbesteko garrantzia izango zuenik, ezta?

Bai, kasualitatez horrela gertatu da. Liburua 2019ko apirilean bukatu nuen. Nobelan Espainiako Gripeaz hitz egiten dut, Nicolek Pariseko ospitalean gaixotasunaren aurka nola borrokatu zuen kontatzeko. Zeinek esango ote zidan liburua amaitu eta hilabete gutxira, mundu mailan egoera oso antzekoa biziko genuela. Osasun arloko profesionalen lana beti goraipatzekoa dela uste dut, egoera konplexuetan haiek baitira gainontzeko biztanleak zaintzeaz arduratzen direnak.

Antzekotasunak ikusten dituzu Nicolek bizitako eta egun pairatzen ari dugun egoeraren artean?

Bai, antzekotasun asko daudela uste dut. Espainiako Gripeak udaberrian lehen olatu bat izan zuen. Udaran egoera lasai zela zirudienez jendea berriro normaltasunez bizitzen hasi zen, baina epidemiaren bigarren zatia iritsi zen eta lehen olatua baino latzagoa izan zen. Hortaz, orain arte Covid-19aren pandemiarekin bizi izan dugunarekin antzekotasun asko ikusten ditut. Bestetik, aipagarria iruditzen zain Espainiako Gripearekin Nicolek maskaren erabilera zabaldu zuela edo eskuen higieneari garrantzi handia eman ziela. Gainera, gripeaz jotako gaixoak bakartu eta espazioak aireztatzeko beharra ikusi zuen. Neurri berezi horiek guztiak eleberrian azaltzen ditut eta nobela gaur egun irakurriz gero, nahita egindako zerbait dela dirudi.

Hilabete batzuk igaro dira Nicole eleberria argitaratu zenuenetik. Nolako harrera izan du irakurleen partetik?

Oso pozik nago orain arte liburuak izan duen harrerarekin. Izan ere, hasieran zalantzak izan nituen, adibidez, ez baita soilik nobela historiko bat. Horregatik, istorioa lehen pertsona eta orainaldian idaztea erabaki nuen, nahiz eta horrelako liburuetan normalean hirugarren pertsona eta lehenaldia erabiltzea ohikoagoa den arren. Kontu handiz hartutako erabaki da, horrela, irakurleak Nicole eta bere bizipenak hobeto ezagutzea eta sentitzea errazagoa izan zitekeela iruditu zitzaidalako. Beraz, oso pozik nago irakurleek nire azken lanari egindako arretarekin.

Pandemiak bizimodua aldatu digun heinean, irakurleen irakurketa ohiturak aldatu direla uste duzu?

Hasiera batean bizi dugun egoerak irakurleen artean ondorio negatiboak izango zituela pentsatu genuen. Izan ere, pandemiaren ondorioz liburutegiak itxi edo liburuen banaketa-prozesuak guztiz eten zirelako. Gerora, ordea, konfinamenduarekin jende askok irakurtzeko ohitura berreskuratu duela ikusi dugu, une oro pelikula edo telesailak kontsumitu ordez. Dena den, katalogo eta argitalpen datetan atzerapenak egon dira, Nicole joan den urtean publikatzea aurreikusita baitzegoen eta pandemiaren ondorioz argitalpena hilabete bat atzeratu da. Jendea liburuen babesaren bila dabilela uste dut, bizi dugun egoera latzetik ihes egiteko.

“Bitxia da historiak pertsonaia femeninoak nola ahazten dituen ikustea”

Idazle irundarra izanik, berezia izan da Irungo Liburu Azokan zure liburua aurkezteko aukera izatea?

Bai, gainera, liburu azokan nire lagun idazleekin elkartzeko aukera izan dut, beraz, oso pozgarria izan da Bakarne Atxukarro bezalako lagunekin batera liburuak sinatzea. Horretaz gain, Oskarbi elkarteko beste idazleekin elkartzeko aukera izan dut. Beraz, aurtengo liburu azoka jai bat izan dela esan dezaket, liburuak sinatu, irakurleekin egon eta liburuak aurkezteko aukera eman baitigu.

Horretaz gain, zure lehen eleberria pantaila handira eramateko aukera izango duzu?

Gidoia guztiz bukatuta dago eta Orreaga film ekoizleak gidoilariarekin ukondoz ukondo lan egiteko aukera eskaini dit. Hasieran protagonistek ezaugarri desberdinak izatea kezkak sortzen zizkidan, liburu bat zinerako egokitzeak aldaketa ugari ekarri ohi dituela dakidalako. Hala ere, lanak oso emaitza onak izan dituela uste dut eta gidoigintzaz asko ikasteko aukera izan dut. Orain hainbat plataformarekin negoziazioetan ari dira ekoizleak, beraz, hurrengo pausua eman aurretik apur bat itxaron beharko dugu.

Liburu berri bat idazteak lan handia eskatzen duen arren, jada zure hurrengo liburuan pentsatzen hasi zara?

Bai, nire hurrengo liburua prestatzen hasi banaiz ere, orain etenaldi bat egin behar izan dut Nicolen aurkezpen lanetan zentratzeko. Hurrengo liburuan Bigarren Mundu Gerraren gaia berreskuratuko dut, kasu honetan, ikuspuntu hurbilago batetik lantzeko. Izan ere, Bidasoan Comète sareak izandako presentzia jorratuko dut, emakumeek osatutako sare horrek eraitsitako hegazkinlari aliatuak ebakuatzen nola lagundu zuen bildu eta mugalariek egindako lana kontatzeko. Orain arte oihartzun gutxi izan duen gaia izan da eta emakume haiek egindako lana nabarmentzen saiatuko naiz.

Real Union taldeak Lehenengo RFEF mailan jokatuko du hurrengo denboraldian

Real Union taldeak Lehenengo RFEF mailan jokatuko du hurrengo denboraldia. Talde irundarrak sailkapena lortu zuen SD Tarazona taldea puntu bateko aldearekin garaitu ostean. Lorpena ospatzeko udal ordezkariek maiatzaren 6ean udaletxean talde txuri-beltzari harrera egin zioten.

Maiatzaren 2an Tarazonako partiduan sinatu zuen Real Unionek hurrengo denboraldia Lehenengo RFEF mailan jokatzeko pasea. Izan ere, 150 ikusleren aurrean jokatutako partiduaren amaieran Real Union taldea garaile izan zen, markagailua 1-2 emaitzarekin itxi ostean. Partidua hasi eta gutxira, 4. minutuan, Ekhi Senar jokalariak buru-kolpe batekin egindako golak abantaila eman zion partidu hasieratik talde irundarrari. Partidaren 9. minutuan Tarazona taldeak markagailua berdintzeko aukera izan bazuen ere, Irazusta atezainak Ballarín jokalariaren asmoak garaiz aurreikusi zituen. Horrela, partiduaren lehen zatian Tarazona taldeak saiakera asko egin arren, Real Unioneko defentsa tinko mantendu zen.

Partiduaren bigarren zatia hasi bezain laster, Zourdine Thiorrek sartutako golak Real Unionen bigarren puntua gehitu zuen markagailura. Gainera, Arenas taldea Tajonarren bere partidua irabazten ari zela jakinda, partiduaren erritmoak behera egin zuen. Partidaren emaitza ziurtatuta zegoela zirudienean, ordea, Casi jokalariaren buru-kolpe batekin Tarazona taldeak bere lehen puntua lortu zuen 82. minutuan.

Maiatzaren 2ko partiduaren emaitzarekin Real Union taldeak sailkapen orokorrean 45 puntu batu zituen, denboraldi amaierarako bi jardunaldi falta zirenean. Hurrengo denboraldia Lehenengo RFEF mailan jokatzeko sailkatu ondoren, Real Unionek etxean Osasuna Promesas taldea jaso zuen maiatzaren 9an. Ligako azken partidua, ordea, Murok bigarren zatiaren hasieran sartutako gol batek hiru puntuak eman zizkion Osasuna Promesasi Stadium galen jokatutako partidan. Hala ere, irundarrak partiduaren amaierara arte saiatu arren, ezinezkoa izan zitzaien berdinketaren gola lortzea eta partidua Real Unionen porrotarekin amaitu zen. Behin azken partidua jokatuta, denboraldiko azken jardunaldian atseden hartzea egokituko zaio Real Union taldeari.

Udaletxean harrera

Datorren denboraldian Lehenengo RFEF mailan tokia ziurtatu ostean, Real Unioneko lehen taldeari harrera egin zitzaion Irungo udaletxean. Harrera horretan José Antonio Santano Irungo alkateak, Borja Olazabal Kiroletako ordezkariak eta Udalbatzako talde guztietako ordezkariek parte hartu zuten. Klubaren aldetik, berriz, Ricardo Garcia presidentea, Aitor Zulaika entrenatzailea eta taldeko bost kapitainak izan ziren: Mikel Azkoiti, Jorge Galan, Jon Irazustabarrena, Ekhi Senar eta Mario Capelete.

Alkateak hiriko bandera bat eman zion taldeari, "Aupa Unión" leloa bordatuta zuena. Opari sinboliko horren bitartez hiriak eta zale txuri-beltzek adi eta urrutitik indar egiten jarraitu dutela erakutsi nahi izan da, nahiz eta aurten Galera joatea ezinezkoa izan den.

Harrera ekitaldiaren hasieran José Antonio Santano alkateak Real Union klubeko ordezkariei ongietorria egin zien. "Mila esker une zail hauetan albiste onak emateagatik", esaldiarekin hasi zuen Irungo alkateak harrera ekitaldia. José Antonio Santanok adierazi zuenez, ohiko harrera ekitaldi jendetsua antolatzea ezinezkoa bada ere, talde txuri-beltzak "lehen mailako" taldea dela erakutsi du berriro ere. Denboraldian zehar jokalariek zelaian zuzenean zaletu irundarren babesa jasotzea ezinezkoa izan den arren, alkateak irundar asko hiriko futbol taldearen maila igoerak eragindako poztasuna sentitu dutela helarazi die klubeko ordezkariei.

Lorpenaren protagonistak

Mikel Azkoiti kapitainak hiriaren eta futbol klubaren arteko lotura azpimarratu zuen, lotura horri esker etorkizunean Real Unionek aurrerapausoak ematen jarraitzeko aukerak izango dituela ziurtatuz. Jorge Galan kapitainak, aldiz, klubak une zailetan udalaren eta jende askoren babesa jaso izana eskertu zuen, klubaren azken lorpena aurretik egindako lanaren emaitza dela azaltzeaz gainera. Aitor Zulaika entrenatzailea futbol taldearen inguruan une zail zein onetan sortu ohi den elkartasuna gogora ekarri zuen bere hitzaldian. Horrekin batera, alkateak ekitaldiaren hasieran lorpenak eskuratzeko errezeta zein den galdetu ziola aprobetxatuz, Zulaikak honakoa adierazi zuen: "futbola igandeetan ikusi arren, errezetaren gakoa astelehenetik larunbatera egiten den lanean dago".

Ricardo Garcia Real Unioneko presidenteak, hunkiturik, 5 wTarazonako partidua nola bizi izan zuen kontatu zuen. Era berean, Lehenengo RFEF mailara igoerak klubean datorren denboraldian eragingo dituen aldaketak aurreratu zituen, Real Union "maila altuko" kategoria batean sartuko dela azaltzeko. Horretarako, taldea indartzeaz gainera, udaletxeko bisita aprobetxatuz, Stadium Galeko zelai eta instalakuntzek etorkizuneko erronkei erantzun ahal izateko behar dituzten hobekuntza lanak aipatu zituen Real Unioneko presidenteak. Izan ere, maila igoerak ahalegin bereziak eskatuko dizkio talde irundarrari 2021/2022 denboraldian.

Aitor Zabala, piraguismo entrenatzailea:

"Harrobi taldea gara eta familia baten antzera lan egiten dugu"

Aitor Zabala Santiagotarrak elkarteko piraguismo entrenatzailea da Erik Arocenarekin batera. Aitor Zabalak Espainiako Maratoi Txapelketan klubak lortutako emaitzak errepasatu ditu, klubaren erronkak zeintzuk izango diren azaltzeaz gainera. Era berean, klubak pista zein maratoi modalitateak uztartzeko egiten duen lanaren berri eman du entrenatzaileak.

Pontevedrako txapelketan taldeak emaitza bikainak lortu zituen, ezta?

Bai, oso pozik gaude taldeak azken txapelketan lortutako emaitzekin, izan ere, klubeko hiru kirolari Europako Txapelketarako sailkatzea lortu dugu eta. Gainera, hiru jubenilek lehen aldiz nazioarteko txapelketa batean lehiatzeko aukera izango dute. Guretzat garrantzitsuena kirolarien lanak emaitzak ematen dituela ikustea da.

K1ean Eider Amundarain eta K2an Unai Amostegik eta Martin Mirandak osatutako bikotea sailkatu dira. Nola lortu zuten Europako Txapelketarako sailkatzea?

Eiderrek, esaterako, txapelketa oso ona egin zuen. Probaren hasieratik beste kirolari batekin batera alde handia atera zien gainontzeko piraguistei, eta lan horri eustea lortu zion. Bere kasuan, bi kirolari sailkatzen ziren Europako Txapelketarako eta bigarren postua lortu zuen, beraz, oso pozik gaude. Mutilen kasuan, berriz, lehia handia zegoen eta irteera ez zuten behar bezain ondo egin. Horren ostean, lehen taldea harrapatzea ezinezkoa izango zela zirudien arren, azkenean Zamorako beste kide batzuekin gainontzekoak aurreratzea lortu zuten. Esprintean helmuga 2 segundoko aldearekin zeharkatu ostean, bigarren postuan iritsi ziren.

Horretaz gain, kategoria mistoan urrezko domina irabazi zenuten?

Hori da. Izen-emateak egiterakoan kategoria mistoa zegoela ikusi genuen eta kategoria berri hori probatzeko K2 bat osatzea erabaki genuen. Eider Amundarainek eta Mikel Larrartek oso lasterketa txukuna egin zuten, hasieratik bakarrik ihes egin baitzuten. Egia esan, elkarren artean oso giro ona dute, oso pozik daude lortutako emaitzarekin eta gu ere bai.

Emaitza horiek maratoi modalitatean lortutakoak dira. Zertan desberdintzen dira pista eta maratoi modalitateak?

Pistako modalitatearen barnean 3 modalitate ezberdin daude: 200, 500 eta 1.000 metroak. Modalitate horiek K edo C 1, 2 edo 4koan egin daitezke. Maratoian, aldiz, pertsona bat edo bi lehiatzen dira eta lasterketa askoz luzeagoak dira. Hainbat buelta ematen dira lasterketaren arabera, baina itzuli bakoitzak 4 kilometroko ibilbidea izan ohi du gutxi gorabehera. Buelta bakoitzean piragua eskuan hartu eta leku batetik bestera eraman behar dute, berriro uretara bueltatu eta bueltak ematen jarraitu aurretik. Idea bat egiteko, jubenil mailan neskek 19 kilometro egiten zituzten eta mutilek ia 23.

Aurtengo denboraldia Santiagotarrak elkartean jada 5 pertsona sailkatu dira Europako txapelketetarako. Non dago sekretua?

Lana, lana eta lana. Erik nire lankideak urte asko darama hemen taldearekin lanean. Kadete eta infantil kategorietatik hasita kirolariei diziplina erakusten saiatzen gara. Ez dago bestelako sekreturik, gakoa lan egitean eta gauzak ondo egitean dago. Azkeneko urteetako lana oso ona izan da.

Harrobian egindako lanari esker, urtero goi mailako txapelketetarako hainbat jokalari sailkatzea ohiturra bihurtzen ari da. Gaizki ohitzen ari gara?

Batzuetan hori bera komentatzen dugu, azken urteetan beti sailkaturen bat izatera ohitu garela eta noizbait hori lortuko ez bagenu gure helburua lortu ez dela iruditu dezakeela. Egia esan, harrobiko taldea gara eta familia baten antzera lan egiten dugu. Beste klub batzuek guk baino baliabide ekonomiko gehiago dituzte eta fitxaketak egin ditzakete, guk, aldiz, beti sekulako harrobia izan dugu eta azken urteetan hori agerian gelditu da.

Erik Arocenarekin batera, nola antolatzen dituzue entrenamenduak harrobia lantzeko?

Harrobia aurretik dator, kimu eta infantiletan ditugun entrenatzaileen lanari esker. Kategoria horietan lehiatzen ikasteko oinarriak irakasten zaizkie, gero kadete, jubenil edo senior mailetara pasatzeko. Guk ordu asko ematen ditugu hemen eta beti laguntzeko prest gaude.

Emakume kirolarien kopuruak eta haiek lortutako emaitza onek gora egin dute Santiagotarraken?

Bai, betidanik izan ditugu K4 edo K2 mailetan finaletara iritsi izan diren emakume kirolariak. Hemendik kanpo Santiagotarrakeko neskak ezagunak dira, Espainiako lehen postuak askotan bete izan dituztelako. Beste talde batzuetan neska eta mutilak banatu ohi dituzte entrenatzeko, gu aldiz, elkarrekin entrenatzen gara.

Gainera, pistako modalitateko 3 kirolari Sevillan errendimendu altuko zentru batean prestatzen ari dira. Zer suposatzen du hori klubarentzat?

Duela 10 urte pentsaezina zen horrelako aukera bat izatea. Hemendik bi astera pistako taldearekin beste txapelketa bat izango dugu, beste selektibo bat eta zorte apur batekin klubeko beste kirolari batzuk Europa edo Munduko txapelketetarako sailkatzea lortuko dugu. Gure ustez oso garrantzitsu da pista zein maratoi modalitatea lantzea, pertsona batzuk azkarragoak dira eta, beste batzuk, ordea, erresistentzia maila hobea dute. Martxora arte guztiekin 5.000 metroko txapelketa bat prestatzen dugu eta hortik aurrera taldea bitan zatitzen dugu bakoitzaren espezialitatearen arabera.

Zehazki, zein dira datozen aste edo hilabeteetarako dauzkazuen erronkak?

Bi aste barru Pontevedran berriro Espainiako 200 eta 500 metroko kopa izango dugu. Neskekin jubenil mailan selektibo hau prestatzen ari gara, Eider, Uxue Maialen eta Irenerekin batez ere emaitza onak lortzen ahaleginduko gara. Beraz, txapelketa ondo egiten ahalegindu beharko dugu, gerokoak antolatzen saiatu aurretik.

Europako Txapelketak udaran egingo dira?

Bai, maratoikoa uztailean izango da. Pista modalitatean Europa eta Mundu mailako txapelketak daude eta datorren txapelketan sailkatuko dira txapelketa horietan parte hartuko duten kirolariak. Maratoian uztailean sailkatutakoek Munduko Txapelketan edo beste selektibo batean parte hartzeko aukera izango dute. Hortaz, pertsona gehiago sailkatzeko hainbat aukera ditugu orain-dik.

Antzerki erromatarra Oiasso museoan



Antzerkigintzak berebiziko garrantzia zuen erromako kulturan. Antzerki obrak ospakizun eta jaiegun ugariren agendaren parte zirenez, autoritate publikoek antolatu eta ordaintzen zituzten, sarritan doako ogi banaketak ere egiten zirelarik ikusleen artean. Hasiera batean obra hauek zeremonia erlijiosoei loturik bazeuden ere, pixkanaka erlazio hori ahultzen joan zen eta K.a. I. mendetik aurrera ohikoa zen antzezlan antolatzea urteurren garrantzitsuetan, handikien hiletetan edo gertakari berezien testuinguruan, zirkuko eta anfiteatroko jokoekin batera.

Hasiera bateko eszenatokiak behin behineko egurrezko egitura xumeak ziren eta K.a. 55 arte itxoin behar dugu ezagutzen den lehendabiziko harrizko agertoki bat eraiki arte, Ponpeio Magnoren aginduz. Ikuskizun ofizialetarako ez zen argiztapen artifizialik erabiltzen, egunez ospatzen baitziren, eguerdiko otorduaren ondoren. Antzezlanak helburu horretarako izendatuak izan ziren magistratu batzuek ikuskatzen zituzten. Hauen lana produkzioaren ardura konpainiako zuzendari bati esleitzea zen, "dominus gregis" deitua, aktore ezagun bat izan ohi zen. Ordea, gaur ez bezala, aktore lanbidea ez zegoen ongi ikusirik, normalean gizarte talde umilenetan, esklaboen multzoan barne, zutelako jatorria.

Errepublika garaian antzerkigintzak zirkuak baino ospe eta jarraitzaile gehiago bazituen ere, hurrengo mendeetan alderantzizko joera nagusitu zen. Dena den, antzerkiarekiko zaletasuna indartsu mantendu zen horren lekuko direlarik eszenatoki berrien eraikuntzak eta aurretik eginikoen mantenu lanak. Erromatako antzerkigintzan, greziarrean bezalaxe, tragediak eta komediak lantzen ziren musikak lagundurik, baina ikuslegoaren antzezlan gogokoenak pantomimak –pantomimi– eta fartsak –mimi– osatzen zituzten. Azken bi genero horiek hasiera batean bigarren maila batean aurkitzen ziren, normalean ikuskizun bat amaitu eta hurrengoa hasi bitarteko pausaldietan edo jaialdiari bukaera emateko interpretatzen zirelako.

Erromatarren egunerokotasunean, antzerkiak pisu sozial handia zuen, antzezlanak ikuslegoaren ezaugarriei egokitzen zirelako garaiko gizartean kritikagarriak ziren arlo guztiak kritikatu eta salatuz. Kristautasunaren etorrera eta ofizialtzearekin antzerkigintzaren eta aktoreen kontrako jarrerak ugaritu ziren, baina antzerkia ez zen desagertu, alderantziz, garai berrietara egokituz aurrera egin zuen.

Ia 2.000 urteren ostean, garai hartako bizitzaren sormenaren alderdi garrantzitsu bat eskuratzea da museoaren helburua. Erromatarrek komedia maite zuten moduan, garai zail hauetan museoak ere jolas eta dibertsioari lekua egin nahi dio. Antzerkia beti izan da gizartearen ispilua, baita arazoak kanporatu eta katarsiaren bidez gure bizitzaren beste ikuspegi batzuk lantzeko modua ere. Alegia, pentsarazi eta geure buruaz barre egiteko tresna. Ondo pasa eta ondo pasarazi. Ikasi eta irakatsi. Harremanak eraiki eta gizarte aberatsago eta osasuntsuagoa eraiki, bizikidetzaren baloreak landuz.

Grezia eta Erromatik jaso dugu gure kultura. Bertako antzerkiak dira gure antzerkiaren oinarria, eta orduko antzerkiaren ohiturak, testuak, egiteko moduak dira gure antzerkia eraiki dutenak. Antzerkia kulturaren adierazpide bizia da. Horregatik Oiasso Museoak antzerki klasikoaren oinarriak eskuratuta, iraganeko bizitza hura gaur egunera ekarri nahi ditu.

Oiassortu egitasmoaren baitan haur, gazte eta helduak antzerki klasikoa ezagutzen eta egiten jarriko ditugu, gaur egungo begiradatik iraganera hurbiltzeko, duela 2.000 urteko kezkak, zalantzak eta gatazkak eguneratzeko modu bizian eta ondo pasatuz. Irakurketa dramatikoen tailerra ere abian jarriko dugu, testu klasikoak landu eta edertasunez irakurtzeko. Gure helburua tailer horien bidez antzerkiarekiko zaletasuna piztu, antzerki klasikoaren ezagutza bultzatu eta museoaren inguruan komunitate bizia eraikitzea da.

Dies Oiassonis ekitaldian gainera, Erromatarren garaiko emakume oiassotarren bakarrizketak antzeztuko dira, eta irakurketa dramatizatuak jarriko dira abian. Oiasso Museoa eta Dies Oiassonis etorkizuneko antzerki klasikoaren erakusleiho bilakatuz.

Antzerki tailerren eskaintza

Ildo horretatik, Oiasso museoak antzerki tailer ugari antolatu ditu, maiatzean zehar aurrera eramango direnak. Horien artean, Maider Galarzak haurrentzako antzerki tailerra gidatuko du 8 eta 13 urte arteko umeentzat. Haurren tailerra maiatzaren 5etik ekainaren 23ra egingo da. Tailerra asteazkenetan arratsaldeko 17:15etatik 18:30etara egiten da eta jolasak, esketxak, antzerki laburra eta koreografiak lantzen dituzte bertan.

Era berean, Maider Galarzak antzezle gazteentzat pentsatutako beste tailer bat zuzentzen du, 14 eta 20 urte artekoentzat. Gazteen tailerra maiatzaren 5ean hasi zen eta ekainaren 23an amaituko da. Tailerra asteazkenetan arratsaldeko 18:45etatik 20:00etara egiten da eta jolasak, inprobisazioak, antzerki testu laburrak eta klasiko baten moldaketak landuko dira.

Aizpea Goenagaren eskutik, berriz, Oiasso museoak helduentzako antzerki tailerra martxan du. Helduentzako ikastaroa 20 urtetik gorako pertsonentzat prestatuta dago eta maiatzaren 4tik aurrera ekainaren 22ra arte asteartero arratsaldeko 18:30etatik 20:00etara egingo da. Helduentzako antzerki tailerrean ariketak, inprobisazioak eta testu klasikoak jorratuko dira.

Era berean Oiasso museo erromatarrak irakurketa dramatiko tailerra martxan jarriko du, Ane Pérezen eskutik. Irakurketa dramatikoko tailerra maiatzaren 27an hasiko da eta uztailaren 9ra arteko ostegunetan egingo da, arratsaldeko 18:30etatik 20:00etara.

Oiasso museoak antolatutako tailerretako batzuk jada hasita badaude ere, antolatzaileek jakinarazi dutenez plaza libreak dituzten ikastaroetan izena emateko aukera dago oraindik. Antzerki ikastaroetarako izen-ematea info-oiassomuseo@irun.org posta elektronikora idatziz egin beharko da. Era berean, museoko arduradunek baieztatu dute eskariaren arabera etorkizunean ikastaro berriak antolatzeko asmoa dutela.

EL PILAR HH

Denbora-pasak

7 hitz: Eguraldia



O	E	G	U	Z	K	I	N	N	Z	D	D	Y	Z
E	E	V	K	W	E	G	D	H	C	H	J	Z	F
J	J	S	I	F	A	B	L	P	M	T	M	M	I
H	H	O	D	E	I	K	Q	I	O	M	D	O	W
K	W	T	Z	X	F	L	H	V	N	V	V	M	U
K	T	Y	U	Q	I	Q	L	S	M	I	R	V	S
P	Y	T	X	I	M	I	S	T	A	R	G	I	O
F	A	G	T	M	Z	K	A	Z	K	A	B	A	R
I	M	K	H	V	Y	W	I	E	Q	H	B	P	C
H	A	I	Z	E	N	J	G	Y	R	K	U	Y	P
R	D	Q	Z	C	T	R	U	M	O	I	E	Z	P
Z	B	F	Z	S	Y	V	K	S	Y	F	C	L	C
N	J	A	O	Q	Z	K	F	V	W	G	Q	C	Z
B	X	A	N	D	I	E	U	R	I	O	L	H	X

Euri, eguzki, haize, kazkabar, hodei, trumoi, tximistargi.

	1					3	5	
	8						4	9
					3	2		
	2	3		5				4
7	9			4		8		
8				7				
			8	1				7
2	5			6	4			
	6	7			9	4		8

EGUZKITZA BHI

Bidasoa Lanbide Heziketa ikastetxeak mugikortasun jasangarria bultzatzeko urrats berriak eman ditu

Apirilaren 27an Bidasoa Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak elektrolantegia inauguratu zen. Ekitaldian mugikortasun iraunkorrarekin loturiko 4 ekintza aurkeztu dira, irakasle, ikasle, enpresa eta zentro teknologikoen laguntzarekin aurrera atera direnak. Beste behin, ekintza horiek ikastetxeak jasangarritasuna eta ingurumena zaintzearen aldeko apustu estrategikoaren adibide dira.

Gaur egungo osasun-egoera dela-eta, inaugurazio ekitaldia publikorik gabe eta indarrean dauden murrizketa guztiak betez egin zen. Ekitaldian erakunde publikoetako agintariek eta proiektuak aurrera atera ahal izateko ekarpenak egin dituzten enpresa laguntzaileetako ordezkariek parte hartu zuten. Besteak beste, Iker Estensoro Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko zuzendaria, Nicolás Sagarzazu Eusko Jaurlaritzako Plangintza eta Antolaketako zuzendaria, José Antonio Santano Irungo alkatea eta Borja Olazabal Garapen Iraunkorreko eta Mugikortasuneko ordezkaria bertan izan ziren. Gainera, Ignacio Eguren (Lortek), Alvaro Castro (Elektra) eta Nacho Ruíz (Circutor) enpresa-ordezkariek ere inaugurazio ekitaldian parte hartu zuten.

Guztira, 4 izan ziren apirilaren amaieran Bidasoa Lanbide Heziketa ikastetxeak aurkeztutako proiektuak. Batetik, "Izar" izeneko proiektua aurkeztu zen, formazio ikastetxeko patioan kokaturik aldi berean bi ibilgailu kargatzeko aukera eskaintzen duena. Karga bikoitzeko puntua panel fotovoltaikoak dituen markesina batez estalita dago, ibilgailu elektronikoen karga eraginkorragoa ahalbidetzen duena. Ibilgailu elektrikoen kargarako gunea auzoko bizilagunentzat arratsaldez doan erabilgarri dago. Proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Smart Mobility 2019" laguntza-programaren barneko diru-laguntza jaso du, Elektra eta Circutor enpresen eta ekimena koordinatzeaz arduratzen den Lortek zentro teknologikoaren parte hartzeaz gainera.

Era berean, ibilgailu elektrikoak kargatzeko hainbat konektore dituen panel didaktikoa aurkeztu zen. Eusko Jaurlaritzak babestutako ekimenaren barruan, ikasleak ekintzailetzara animatzeaz gainera, panel didaktiko bat sortu da, ibilgailu elektrikoek erabiltzen dituzten konektore eredu ohikoenekin. Horrela, panelaren bitartez ikasleak eta teknikari instalatzaileak arlo horretan trebatzea lortu nahi da. Bestetik, ekitaldian zehar ikasle eta irakasleen eskariari erantzunez ikastetxean patioan instalatutako patinete elektrikoentzako aparkalekuaz hitz egin zen. Alberto Arranz zuzendariak azaldu zuenez, "hirietan patinete elektrikoekin bizi gara eta zentroan patineteentzako aparkalekua sortzeko eskariak entzuten hasiak ginen".

Bestetik, ekitaldian ikastetxearen eguzki-instalazio fotovoltaikoek sortutako energia monitorizatzen duen sistema aurkeztu zen, bai eta ibilgailuak kargatzeko erabiltzen den energia elektrikoa bistaratzea eta kudeatzea ahalbidetzen duten sistemekin batera. Azkenik, prestakuntza-zentroak instalazioak bereizitako energia-kontsumoen monitorizazio-sistema aurkeztu zen. Sistema horrek, ezartzen ari diren sistema domotikoekin batera, gero eta prestakuntza eraginkorragoa ematen du, formazio garrantzitsua eskainiz.

Instituzioen babesarekin

José Antonio Santano alkateak Alberto Arranz zuzendariari eta, oro har, Bidasoa institutua osatzen duten irakasle eta ikasleei eskerrak eman zizkien bere ekimen eta berrikuntzengatik. Alkateak adierazi duenez, "azkenaldian hainbeste esaten den esaldi hori errepika genezake gaur: etorkizuna jasangarria izango da edo ez da izango". Horrela, Irungo alkateak gogoratu zuen Bidasoa institutuak etorkizunaren aldeko apustua eginez, iraunkortasunaren aldeko apustua egiten duela. "Etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko, paradigma eta pentsamoldea aldatzea beharrezkoa izango da", gaineratu zuen José Antonio Santanok, hiriaren etorkizun jasangarrian pentsatuz udalak hartu dituen azken neurriak gogoratzeaz gainera.

Iker Estensoro Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko zuzendariak adierazi zuenez "etorkizuneko ekonomia ibilgailu elektrikoen bidetik joango da". José Antonio Santanoren hitzekin bat etorri zen, etorkizuna guztiz desberdina izango dela aurreratu eta etorkizun berri hori uste baino lehenago iritsi daitekeela ohartarazteko. Erronkei aukera gisa aurre egin behar zaiela azpimarratu zuen Estensorok.

Nicolas Sagarzazu Eusko Jaurlaritzako Plangintza eta Antolaketako zuzendariaren esanetan, "pandemiaren hasieraren aurretik laugarren industria iraultza bizi-ko genuela entzuten hasi ginen, baina iraultza horrek, industriaz gainera, beste hainbat arlotan eragina izango du". Zentzu horretan, Sagarzazuren hitzetan, instituzioen ardura gizartea etorkizunean gertatuko diren aldaketetarako prestatzea beharrezkoa da.

Bidasoa Lanbide Heziketako ikastetxean garatutako proiektuak aurrera eramaten lagundu duten enpresa eta formazio zentroetako ordezkariek ere inaugurazio ekitaldian parte hartu zuten. Lortek enpresako Ignacio Egurenek adierazi duenez, "gure filosofia ezagutza enpresei transferitzea da". Era berean Lortek enpresako ordezkariak esperientzia positiboa izan dela onartu du eta proiektuak izandako emaitzekin pozik agertu da.

GOOGAZ 3.0 Irun

Googaz Millenial inkonformista talde batek euskal gazteek ekiteko eta beraien bizitzen jabe sentitzeko helburuarekin sortutako mugimendua da. Egitasmoaren jomuga gaur egungo belaunaldia goitik behera aldatzea da, modu berri eta original batean.

Iruneko tokiko merkataritza desagertzea onartu behar al dugu? Guk garbi daukagu ezetz. Zuek?

Maiatzaren 15ean goizeko 10:00etatik 20:00etara.

1) Erreserbatu txartel bat zuen taldearentzat (gehienez 3 pertsona taldeko).

2) Lor ezazue markarik onenetakoa Scape-Room egunean zuen herrian.

3) Parte hartu Gipuzkoako kopan.

4) Irabazi Interrail bat Europan zehar.

GOOGAZ 3.0

Global Training bekak 2021

GLOBAL TRAINING 2021 beka programaren helburua da Euskadiko gazteen nazioarteko prestakuntza eta mugikortasuna ahalbidetzea, eta horretarako, gazteek euren profil akademikoari lotutako jarduerak eta proiektuak egiten dituzte esperientzia profesionala eskuratzeko atzerrian.

Programa honek hasierako prestakuntza eskaintzen du, bai eta 6-12 hilabete arteko praktikaldi bat atzerriko enpresa eta antolakundeetan, bekadunek esperientzia profesionala eskura dezaten nazioarteko inguruneetan.

Epea: maiatzak 21

KZ Gunearen zuzeneko hitzaldiak

KZgunean zuzeneko hitzaldiekin jarraitzen dugu YouTube KZguneaTIC kanalaren bidez. Astero IKTei buruzko hitzaldi berriak izango dira, euskaraz eta gaztelaniaz, 30 minutukoak.

Gure zuzeneko hitzaldietara joateko, interesa duten pertsonek Interneterako konexioa baino ez dute behar, YouTubeko ekitaldirako sarrera librea izango baita (ez da beharrezkoa aldez aurretik izena ematea).

Gogora dezagun, gainera, hitzaldi guztiak YouTubeko gure kanalean grabatuta geratuko direla, nahi denean ikusteko. Hitzaldietarako esteka iGaztearen webgunean topatuko duzue. Maiatzaren urruneko hitzaldien plangintza honako hau da:

3. astea: Zure mediku hitzordua eskatu Internet bidez

- Maiatzak 18, 12:00 - 12:30 / Euskaraz.

- Maiatzak 20, 12:00 - 12:30 / Gaztelaniaz.

4. astea: Komunikatu WhatsAppekin: bideo-deiak eta argazki-partekatzeak

- Maiatzak 25, 19:00 - 19:30 / Euskaraz.

- Maiatzak 27, 19:00 - 19:30 / Gaztelaniaz.

Deskargatu gure App-a eta eraman gaitzazu beti zure Smarthphone edo tabletean, eta eskura izango dituzu nonahi eta noiznahi gure zerbitzu nagusiak!

Ikaslanek Lanbide Heziketarako matrikulazio datak iragarri ditu

Ikaslan Gipuzkoak, Bidasoaldeko Ikaskuntza Bitartekaritzaren bitartez, 2021-2022 ikasturterako Lanbide Heziketarako matrikulazio datak iragarri ditu. Matrikulazioa egiteko kontuan izan beharreko datak honako hauek dira:

- Eskabidea aurkeztu: maiatzaren 31tik ekainaren 18ra arte.

- Behin-behineko zerrenda: uztailaren 9an.

- Erreklamazioak: uztailaren 12ra arte.

- Behin betiko zerrenda: uztailaren 13an.

- Matrikula: uztailaren 19tik 30era.

Ikaslan Gipuzkoaren eskaintza edo matrikulazioarekin loturiko informazio gehiago jasotzeko kontsultatu Ikaslan Gipuzkoaren webgunean, deitu 655806498 telefono-zenbakira edo idatzi ikaslan@ikaslangipuzkoa.net helbide elektronikora.

EHUko Udako Ikastaroen 40. edizioa

Uda Ikastaroen edizio honetan, zazpi gai nagusi nabarmendu nahi izan ditugu, gure eta hurrengo belaunaldien etorkizunari aurre egiteko funtsezkoak direlakoan: hezkuntza, zahartzea, iraunkortasuna, pandemia, genero-ikuspegia, euskal kultura eta gobernantza.

ERRONKAK deitu diegu, eta aurkituko ditugun desafioei hausnarketa eta eztabaidaren bidez erantzun nahi diegu, argia bilatzea helburutzat harturik.

Edizio berezia izango da, pandemiak sortutako egoerara egokitutako eduki berriekin eta online formatuekin.

Informazio guztia: www.uik.eus-en

Maiatzak

16

Musika

Zer: Mikel Azpiroz piano-jotzaileak bere azken lana aurkeztuko du, Fernando Neira (kontrabaxua) eta Karlos Arancegui (bateria) lagun dituela.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 7,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

21

Dokulrun

Zer: Dokulrun zikloaren barnean Juan Palaciosek zuzendutako "Meseta" dokumentala aurkeztuko da, zuzendariaren parte-hartzearekin.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Doakoa, gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Irungo turismo bulegoan eskuratu daitezke.

22

Dantza

Zer: David Vento Dantza konpainiak Neanderthal ikuskizuna eskainiko du, dantza, zuzeneko musika, antzerkia eta bideo-artea uztartuz.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 7,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Iraupena: 60 minutu.

Hizkuntza: Gaztelaniaz.

23

Musika

Zer: Ekialdeko eta mendebaldeko musika elkartzen dituen "Road to dignity" emanaldia Gani Mirzo Band eta Ibrahim Keivo musikarien eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 7,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

27

Zure abenturaren bila

Zer: Ernes Olasagastik "Afrika bi gurpilen gainean noraezean" hitzaldian Lurmutur Hiritik Europara etapatan egindako bidaia azalduko du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Doan, gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Gonbidapenak Amaia Kultur Zentroan banatuko dira jarduera hasi baino 30 minutu lehenago.

Iraupena: 45 minutu.

Hizkuntza: Euskaraz.

29

Antzerkia

Zer: Txontxonligo Taldeak "Erreka Mari, Euskal Herriko azken lamina" ikuskizuna eskainiko du 4 eta 8 urte bitarteko haurrentzat.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Prezioa: 4,50 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Denbora-pasen emaitzak

O	E	G	U	Z	K	I	N	N	Z	D	D	Y	Z
E	E	V	K	W	E	G	D	H	C	H	J	Z	F
J	J	S	I	F	A	B	L	P	M	T	M	M	I
H	H	O	D	E	I	K	Q	I	O	M	D	O	W
K	W	T	Z	X	F	L	H	V	N	V	V	M	U
K	T	Y	U	Q	I	Q	L	S	M	I	R	V	S
P	Y	T	X	I	M	I	S	T	A	R	G	I	O
F	A	G	T	M	Z	K	A	Z	K	A	B	A	R
I	M	K	H	V	Y	W	I	E	Q	H	B	P	C
H	A	I	Z	E	N	J	G	Y	R	K	U	Y	P
R	D	Q	Z	C	T	R	U	M	O	I	E	Z	P
Z	B	F	Z	S	Y	V	K	S	Y	F	C	L	C
N	J	A	O	Q	Z	K	F	V	W	G	Q	C	Z
B	X	A	N	D	I	E	U	R	I	O	L	H	X

9	1	2	4	8	7	3	5	6
3	8	6	1	2	5	7	4	9
5	7	4	6	9	3	2	8	1
6	2	3	9	5	8	1	7	4
7	9	1	2	4	6	8	3	5
8	4	5	3	7	1	6	9	2
4	3	9	8	1	2	5	6	7
2	5	8	7	6	4	9	1	3
1	6	7	5	3	9	4	2	8

Espazio atsegin eta paregabe batean bizi nahi duzu?

Erreforma integralak

Zure etxebizitzan edo enpresan aldaketak egiteko asmoa baduzu. Hamaikan lagun zaitzakegu.

Km0

Konfiantzazko tokiko hornitzaileekin lan egiten dugu. Kalitatea eta zerbitzua emaitza perfektua lortzeko

Bereizi zaitez

Dekorazio aspergarri bera izateaz nekatuta zaude? Kalitatezko altzariak eta dekorazioa eskaintzen ditugu.

Profesionalak

Gremio bakoitzeko profesionalik onenekin lan egiten dugu. Erreformekin sufritzea amaitu da

HAMAIKA

San Marcos Plaza 1,
Hondarribia

(+34) 943 64 64 12
hamaikalan@gmail.com